



MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK BEZaren URTEKO AUTOLIKIDAZIO LABURTZAILEEI BURUZ

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren % 2ko eta % 7,5eko tasa berriak, ondorengo laukietan jarri behar dira.

Aldaketa hauek ez dute BEZaren aitorten-likidazio ereduetan aldaketarik eragingo. Zerga-tasa berrien berri honela emango da 2024ko urritik abendura bitarteko aldietarako:

- Indarrean dauden % 2ko eta % 7,5eko tasa berriak % 5eko tasaren laukian sartuko dira (308 ereduari, % 4ko laukian).
- Eta % 0,26ko eta % 1eko errekar-gu-tasa berriak % 0,5eko eta % 0,62ko tasen laukian sartuko dira.

2. Zergabidea plataforma bidez, urteko eredia betetzeko arazoak.

Laguntza izango dezu ereduko atal ezberdiñetan ikur hau sakatuaz. 

Zergadunaren ohiko arazoietako batzuk hauek izaten dira:

- Ez dira behar bezala bete hasierako eta amaierako izakinen zenbatekoak (44. eta 45. laukiak).
- Autolikidazioaren lehen orrian jasotako kuota kengarrien zenbatekoak (21., 23. eta 25. laukien batura) bat etorri behar du bigarren orrian (75. laukia) jasotako gastu arruntetan, ondasun arruntetan eta inbertsio ondasunetan xehatutako zenbatekoen baturarekin.
- Egindako eta jasotako fakturen liburu-etako informazio laukiak bete behar dira, BIH bidez informazioa bidaltzen dutenak ezik.

3. “Erregimen orokorreko eragiketak, araubide bereziak salbu (ONDASUN ERABILIAK/BIDAI AGENTZIAK/KUTXA IRIZPIDEA)” atalean kontsignatu beharreko zenbatekoa

BEZaren araubide orokorrean zergapetutako eta salbuetsi gabeko eragiketen batura jasoko da, BEZa eta, hala badagokio, baliokidetasun-errekargua barne hartu gabe. Ez dira sartuko ondasun erabilien, artelanen, zaharkinen eta bilduma gaien araubide bereziei, bidaia-agentzien araubide bereziari eta kutxa-irizpidearen araubide bereziari atxikitako eragiketak, bakoitza bere aldetik jasoko baitira bakoitzaren laukietan.

4. Nola islatzen ditugu 390 ereduari leihatila bakarrari – OSS (Merkataritza elektronikoa) – Atxikitako eragiketak?

- 111. Kokapen arauari jarraituz lotu gabe dauden eragiketak (salbu 112 laukian jarritakoak):



OSS "leihatila bakarraren" araubidea indarrean sartu aurreko urrutiko salmentak, lauki honetan sartuko dira.

Eragiketa hauei guztira dagozkien zenbatekoak jarri behar dira, salbu 112 laukian jarritakoenak:

- BEZaren araudiko 68 artikuluan jasotakoari jarraituz Europar Batasuneko beste estatu batzuetara zuzenduta dauden ondasun entrega lotugabeak.
 - BEZaren araudiko 69. eta 70. artikuluetan jasotakoari jarraituz zergari lotu gabe dauden eragiketak, salbu BEZaren Erregelamenduaren 79. artikuluan batasun barruko zerbitzu prestaziotzat hartuta dauden prestazioak.
- 112. OSS. Kokapen arauari jarraituz lotu gabe dauden eragiketak, OSS-ari atxikita daudenak:
OSS. Kokapen arauari jarraituz lotu gabe dauden eta "leiho bakarrari" atxikita dauden eragiketak (One Stop Shop, OSS).
 - 113. OSS. Eragiketa lotuak, OSS-ari atxikita daudenak:
OSS. Zergari lotuta eta "leiho bakarrari" atxikita dauden eragiketak (One Stop Shop, OSS).

5. Nola jaso behar dira 390 ereduaren subjektu pasiboa inbertitua duten eragiketak?

- Eragiketa hauek berezi behar dira:
 - Erosketak, non hartzailea eragiketaren subjektu pasiboa den:
 - Batasun barruko zerbitzuak jasotzen badira: 18-19 laukietan jasoko ditugu eragiketak, eta 25-26etan jasoko dira kuota kengarriak.
 - Gainerako eragiketak (84.bat.2.b)...f): 106-107 laukietan jasoko dugu sortutako BEZa, eta 21-22etan kuota kengarriak.
 - Salmentak, non hartzailea eragiketaren subjektu pasiboa den:
 - Batasun barruan emandako zerbitzuak badira: 85. laukian jasoko ditugu.
 - Gainerako eragiketak (84.bat.2.b)...f): 88. laukian jasoko ditugu.

6. Behin ereduak aurkeztuta, nola zuzendu dezakegu?

Epean aurkeztutako autolikidazioak:

Autolikidazio zuzentzaileak aurkeztu daitezke. Edozein kasutan, prestaketa eremuan (ATAL BERDEA), bigarren aurkezpenetan egoera hau zehaztu behar da, bestela autolikidazioa "errefusatua" egoeran azalduko da, aurkezpen eremuan (ATAL URDIÑA).

Epez kanpo aurkeztutako autolikidazioak:

Aurkezteko epea behin bukatuta, autolikidazio osagarriak bakarrik aurkeztu daitezke emaitza ORDAINTZERA baldin bada eta biak izango dira baliodunak, jatorrizkoa eta



osagarria. Bestela, jatorrizko autolikidazioa zuzentzeko eskatu dezakezu IDATZI baten bitartez.

Aurretik autolikidazio bat aurkeztuta eta honen gerorapen edo zatikaketa eskatuta izan ezker, gogoratu autolikidazio zuzentzaile bat aurkeztuta, gerorapen-zatikaketa eskaera eragiñik gabe gelditzen dela, eta geroratu edo zatikatu nahi izan ezker berriz gerorapen-zatikaketa eskatu behar dela.

7. Nola lortu dezaket CNAEri buruzko informazioa?

Ogasunaren web orrian aurkitu dezakezu informazio hori, ondorengo estekan:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/bezareurteko-aitorpen/kanpaina-aurkezpena>

8. Hainbanaketa edota jarduera diferentziatuak. Adibide praktikoa:

Ondasun higiezinaren errentamenduko jardueran alta emanda dagoen enpresariak edo profesionalak eragiketa hauek egiten ditu: BEZari lotuta eta salbuetsi gabekoak, zein BEZari lotuta eta salbuetsitakoak.

Adibidez, %42ko hainbanaketa orokorra aplikatzen badu, jarduera horri buruzko informazioan, G jarriko du tasari buruzko laukian eta 42, berriz, hainbanaketa ehunekoan.

Hainbanaketa berezia aplikatzen badu, jarduera horri buruzko informazioan, E jarriko du tasari buruzko laukian.

9. Enpresa konkurtsatu batek 390 eredu bi autolikidazio, hau da, bi 390 eredu, aurkeztu behar baditu telematikoki, nola egin behar du?

Horrelako kasuetan, enpresa konkurtsatua dela adieraziko du bere autolikidazioetan. Era berean zein autolikidazio den konkurtso aurrekoa eta zein ondorengoa adieraziko du.

10. Nola jaso behar dira 390 ereduan kutzaren irizpidearen erregimen berezian egiten diren eragiketak?

- Bereiztu behar dira:
 - Kutzaren irizpidearen erregimen berezia aplikatzen dutenak
 - Erosketak:
21 eta 22 laukietan *ordainduta dauden jasotako fakturak* jarriko dira.
103 eta 104 laukietan *jasotako faktura guztiak* jarriko dira.
 - Salmentak:
02 laukitik 17ra *kobratu diren egindako fakturak* jarriko dira.
101 eta 102 laukietan *egindako faktura guztiak* jarriko dira.



- Kutzaren irizpidearen erregimen berezia aplikagarria zaien eragiketen hartzaileak direnak
 - Erosketak:
21 eta 22 laukietan errejimen orokorrean jasotako fakturak jarriko dira eta kutxa erizpidean jaso eta ordaindutakoak.
103 eta 104 laukietan kutxaren irizpidearen erregimen berezian jasotako fakturak (kutxa erizpidearen aipamena fakturan) jarriko dira nahiz eta ordaindu gabe egon.
 - Salmentak:
02 laukitik 17ra egindako faktura guztiak jarriko dira.